



ALKIZAKO UDALA

UDALBATZARRAK 2023ko ABENDUAREN 5EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2023ko abenduaren 5ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Nagore Arizeta Garmendia
Ana Agesta Echecolonea
Gillermo Otegi Zubillaga
Koldobika Jauregi Zinkunegi

Bere ezin etorria azaltzen du: Unai Sorarrain Urruzola

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
✓ **2023ko urriaren 31an egindako ohiko bilkuraren akta**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Aiztondo klasika batzordea eta Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul, Villabona-Amasa eta Zizurkilgo udalen arteko hitzarmenaren onespena, Aiztondo Klasika txirrindularitza proba antolatzeke.**
- 5. Alkizako udala eta Alkizako 4 poligonoko 079 lursailaren eta 01 poligonoko 384 lursailaren jabearekin hitzarmena onestea, bertan haritzak, pagoak eta gaztaiondoak aldatzeke.**
- 6. Alkizako Erretore Etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntza lanen 1. Obra ziurtagiriaren onespena.**
- 7. Tolosako Hiltegi Mankomunatuari 2023 urteari dagokion ekarpena onartu eta burutzea.**
- 8. Programa bidezko bitarteko funtzionario izendatzeko, Alkizako herriaren turismo ekimenak kudeatzeko eta zabaltzeko lan-poltsaren deialdia eta oinarriak onartzea.**



ALKIZAKO UDALA

9. Beste batzuk

10. Mozioak, erreguak eta galderak.

10.1. EUDELen adierazpena 2023ko azaroaren 25erako, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko eguna dela eta.

10.2. Abenduak 3, Euskararen eguna dela eta UEMA-ko adierazpena.

10.3.EHPM-MPEH MOZIOA: Gutxieneko pentsioa 1080.

10.4.Tolosaldeko Mugimendu feministak aurkeztutako mozioa.

.../...

LEHEN PUNTUA

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENAK

- 2023ko urriaren 31ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 81/2023tik 89/2023 arteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

EBA ERKIZIA	1.048,63
ALKIZAKO HERRI OSTATUA	13,20
ORANGE	219,84
ULAHI	648,57
ULAHI	96,96
KIROLZER	176,20
GUREAK	4,76
SUMINISTROS ZELAI	42,18



ALKIZAKO UDALA

URAK SOLUCIONES TECNICAS	471,90
GOIENER	21,63
ITZIAR SAENZ DE OJER	550,00
MAQUELSA	41,87
JUNKERS	129,65
ARGITU	205,89
SOLRED	133,01
QUISER	61,13
SGAE	366,06
SGAE	81,31
KEY LAN	5,01
GARAJE IBARRA	56,75
CALPARSORO INDUSTRIAL	63,22
RED OFISAT	139,33
RED OFISAT	139,33
EGIMENDI	2.033,80
TOLOSAKO KOMUNIKAZIO TALDEA	169,40
GOIENER	820,99
GOIENER	227,31
GOIENER	18,08
GOIENER	79,71
GOIENER	124,12
GOIENER	44,35
GOIENER	25,97
GOIENER	20,28
GOINER	31,74
GOINER	9,74
GOINER	27,97
GOINER	25,40
GOINER	4,70
GOINER	15,34
CORO DE CAMARA GAZTELUPE	500,00
UDALATX	346,60
ORANGE	35,27
ORANGE	231,72
ORANGE	35,27
ORANGE	288,40
SOROA ARQUITECTOS	3.267,00



ALKIZAKO UDALA

OTERO PILOTAGILEA KOOP.ELK	199,65
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	116,16
JUAN JOSE ARREGI	644,02
GUREAK	2,95
QUISER	334,57

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **14.396,94** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

AIZTONDO KLASIKA BATZORDEA ETA ADUNA, ALKIZA, ASTEASU, LARRAUL, VILLABONA-AMASA ETA ZIZURKILGO UDALEN ARTEKO HITZARMENAREN ONESPENA, AIZTONDO KLASIKA TXIRRINDULARITZA PROBA ANTOLATZEKO

Ikusirik Aiztondo Klasika batzordeak igorritako hitzarmenaren zirriborroa, Aduna, Alkiza, Larraul, Asteasu, Villabona-Amasa eta Zizurkilgo Udalek onartu dezaten, non Aiztondo Eskualdean afizionatu mailako goi mailako txirrindularitza proba elkar lanean antolatzea arautzen den.

Ikusirik aipaturiko hitzarmena sei urteetarako iraupena izango duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aiztondo Klasika batzordea eta Aduna, Alkiza, Larraul, Asteasu, Villabona-Amasa eta Zizurkilgo udalen arteko hitzarmena onestea, non Aiztondo eskualdean afizionatu mailako goi mailako txirrindularitza proba elkar lanean antolatuko den.

BIGARRENA: Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkate-Lehendakari jaunari ahalmena ematea aipaturiko hitzarmena sinatu dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Aiztondo Klasika batzordeari eta Aduna, Alkiza, Asteasu, Villabona-Amasa eta Zizurkilgo udalei ematea.



ALKIZAKO UDALA

BOSTGARREN PUNTUA

ALKIZAKO UDALA ETA ALKIZAKO 4 POLIGONOKO 079 LURSAILAREN ETA 01 POLIGONOKO 384 LURSAILAREN JABEAREKIN HITZARMENA ONESTEA, BERTAN HARITZAK, PAGOAK ETA GAZTAINONDOAK ALDATZEKO

Ikusita Alkizako udalak Hernio-Gazumeko kontserbazio eremuaren Alkizako sarrera zonaldea berroneratzeko proiektua onestu duela.

Ikusita proiektu honen babesean, Alkizalete baserriko 1 poligonoko 384 eta 4 poligonoko 079 lursailetan haritza, pagoa eta gaztainondoa aldatzeko lanak egiteko asmoa dagoela.

Ikusita, Jose Ignacio Gorostidi Usabiaga jauna, aipaturiko lursailaren jabea dela eta baimena ematen duela bere lursailetan aipaturiko zuhaitzak aldatzeko.

Ikusirik, Hitzarmen zirriborro bat prestatu dela Alkizako udalaren eta Jose Ignazio Gorostidi Usabiaga jaunaren artean, bertan poligono 4, 079 lursailean eta poligono 1, 384 lursailean haritzak, pagoak eta gaztainondoak aldatzeko.

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako udalaren eta Jose Ignacio Gorostidi Usabiaga jaunaren arteko hitzarmena onestea, non poligono 4, 079 lursailean eta poligono 1, 384 lursailean haritzak, pagoak eta gaztainondoak aldatzeko eta hauek mantentzeko baldintzak arautzen diren.

BIGARRENA: Inaki Irazabalbeitia alkate jauna ahalmenu, aipaturiko hitzarmena sina dezan.

SEIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO ERRETORE ETXEAN IGOGAILUAREN IPINTZEA ETA IRISGARRITASUN BALDINTZEN HOBEKUNTZA LENEN 1. ETA 2. OBRA ZIURTAGIRIEN ONESPENA



ALKIZAKO UDALA

Ikusita Alkizako udalak, 2023ko irailaren 12an egindako udalbatzarrean, Alkizako Erretore etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntza lanak esleitu zizkiola OSTARBI ERAIKUNTZAK ETA ZERBITZUAK, S.L.ri.

Ikusirik, aipaturiko lanak hasi direla.

Ikusirik egindako lanen ondorioz, OSTARBI ERAIKUNTZAK ETA ZERBITZUAK, S.L.-k 1. eta 2. Obra ziurtagiriak aurkeztu dituela.

1. Obra ziurtagiria: 27.209,42 euro.
2. Obra ziurtagiria: 30.799,00 euro.

Ikusirik aipaturiko obra ziurtagiriei, obra zuzendariak, hau da, Eba Erkizia udal aholkulari teknikoak bere on iritzia eman diela.

Ikusirik aipaturiko obra ziurtagiriak ordaintzeko 2023ko udal aurrekontuetan badagoela adina diru kopuru.

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: OSTARBI ERAIKUNTZAK ETA ZERBITZUAK, S.L.-k aurkezturiko, Alkizako Erretore etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntza lanen ondorioz, 1. eta 2. Obra ziurtagiriak onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea.

Ondorengoak direlarik:

1. Obra ziurtagiria: 27.209,42 euro.
2. Obra ziurtagiria: 30.799,00 euro.

BIGARRENA: 27.209,42 eta 30.799,00 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa udal aurrekontuetako 1 0000 622.920.00.01 kontu sailaren kontura egin dadin agintzea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

TOLOSAKO HILTEGI MANKOMUNATUARI 2023 URTEARI DAGOKION EKARPENA ONARTU ETA BURUTZEA

Ikusirik Tolosaldeko Hiltegiko Mankomunitateak 2022ko azaroaren 28an egindako bilkuran, aho batez erabaki zuela, Mankomunitateko kide diren Udalek egin beharreko ekarpena,



ALKIZAKO UDALA

ondorioz, Alkizako Udalarari 269,00 euroko ekarpena egitea suposatzen dio.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Hiltegi Mankomunitateari 2023 urteari dagokion ekarpena onestea eta burutzea, 269,00 euroko diru kopuruan. Ordainketa hau 2023ko Udal aurrekontueta 421.431.00.01 partidaren kargura egingo da.

BIGARRENA: 269,00 euroko gastua onestea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

PROGRAMA BIDEZKO BITARTEKO FUNTZIONARIO IZENDATZEKO, ALKIZAKO HERRIAREN TURISMO EKIMENAK KUDEATZEKO ETA ZABALTZEKO LANPOLTSAREN DEIALDIA ETA OINARRIAK ONARTZEA

Ikusirik Programa bidezko bitarteko funtzionario bat kontratatze beharrean dagoela Alkizako Udala, herriaren turismo ekimenak kudeatzeko eta zabaltzeko intentzioarekin.

Ikusirik, aipaturiko lan kontratua egiteko lan poltsa bat egin behar duela Alkizako Udalak, horretarako dagozkion oinarriak prestatu direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Programa bidezko bitarteko funtzionario bat izendatzeko, Alkizako herriaren turismo ekimenak kudeatzeko eta zabaltzeko lan poltsaren deialdia eta oinarriak onartzea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

BESTE BATZUK

Ez dira aurkezten.

HAMARGARREN PUNTUA

MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK



ALKIZAKO UDALA

10.1. EUDEL-en ADIERAZPENA 2023KO AZAROAREN 25erako, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNA DELA ETA

Ondoren, 2023ko azaroaren 25erako emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko eguna dela eta, Eudel-en adierazpena aurkezten da, non ondorengo dioen:

“AZAROAREN 25erako EUDEL-en 2023ko ADIERAZPEN EREDUA, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNARI BURUZKOA

Emakumeenganako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egun honetan, azaroak 25, sexu-indarkeriak adingabeen artean gero eta eragin handiagoa duela azpimarratu eta arreta jarri nahi dugu, indarkeria mota hori ikusezina eta normalizatuena baita, eta urtetik urtera gora egiten jarraitzen baitu.

Hainbat txostenen arabera, sexu-delituen biktimen % 40 adingabeak dira, gehienak neskak eta nerabeak. Adingabeen sexu-askatasunaren aurkako delituen ehunekoak ere gora egin du. Laguntza espezializatuaren eskaerak ere gora egin duten arren, datuek erakusten dute neskek zailtasun handiak dituztela indarkeria-adierazpen jakin batzuk antzemateko beren portaeran, bai berdinen taldean, bai harreman afektiboetan.

Mugimendu feministak eta adituek horien arrazoiak genero-ikuspegidun kalitatezko sexu-hezkuntzarik ez izatea eta familietan eta eskola-inguruneetan gizarte-balio egokiak transmititu ez izana direla adierazten dute. Era berean, ohartarazten dute adingabeen artean genero-mito eta -estereotipoak hedatzen ari direla, baita haurren sexualizazioari eta pornografiaren bidezko sexu-hastapen goiztiarrari buruzkoak ere, neurri handiagoan, ohiko erabilerako sare sozialetan. Kasu askotan, gainera, biktimen sinesgarritasunik eza antzematen da, eta horrek eragotzi egiten du esku-hartze goiztiarra eta erreparatzailea, adingabeei egindako sexu-abusu eta sexu-erasoen kasuetan.

Horren guztiaren ondorioz, harreman afektibo-sexualen eta gizonen eta emakumeen harreman horietan duten rolaen irudi desitxuratua zabaldu da. Sexu-indarkeria hutsaldu eta legitimatu egiten da, emakumeen nahiak eta gorputzak menderatzeko modu gisa. Jokabide larriek eraso sexualetara eta fisikoetara eramaten dezakete, baita, muturreko moduetan, emakumeen hilketetara ere.

Horren guztiaren aurrean, euskal erakundeek eskura dituzten estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar dituzte, emakumeek eta neskek bizitza garapen osoa izan dezaten, askatasun- eta segurtasun-baldintzetan. Hain zuzen ere, beraien desirak, afektuak eta sexu-portaerak derrigortzerik eta



ALKIZAKO UDALA

indarkeriarik gabe adieraz ditzaten, genero-estereotipoak eta genero-aginduak alde batera utzita.

Udalak, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak diren aldetik, udalerritan berdintasunezko eta indarkeriarik gabeko bizikidetzarako baldintzak bultzatzeko arduradunak dira. Hori dela eta Larraulgo Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- *Indarkeria matxista prebenitzeko tokiko estrategia eratzea/hobetzea/indartzea, adingabeen artean sexu-indarkeriari aurre egiteko egiturak, baliabideak, zerbitzuak edo programak ezarriz.*
- *Biktima adingabeen inguruan sexu-indarkerien antzematea eta arreta goiztiarra gaitzea/hobetzea, tokiko koordinazio-protokoloen bidez.*
- *Sexu-indarkerien biktimekin esku hartzen duten profesionalen prestakuntza-programak diseinatzea/ezartzea/eta ebaluatzea*
- *Sentsibilizazio-programak diseinatzea/garatzeta/hobetzea herritarrekin, eta bereziki gurasoekin eta irakasleekin, IGEen bitartez, genero-ikuspegidun kalitatezko sexu-hezkuntzaren beharrari buruzkoak.*
- *Hezkuntza ez-formaleko espazioetatik hezkuntza-prozesuak garatzen laguntzea, adingabeen indarkeria matxistaren aurkako jarrerak indartzeko.*

Konpromiso horietan oinarrituta, honako ekintza hauek proposatzen dira:

- *Neskei eta nerabeei zuzendutako ahalduntze-programak indartzea, sexualitateari, bikote-harremanei, maitasun erromantikoari, autodefentsa feministako tailerrei eta abarrei buruzkoak*
- *Mutiko eta mutilei zuzendutako esku-hartzeak abian jartzea, afektibitatea, harreman-ereduak, maskulinitate-ereduak edo rol sexistak eta parekidetasuna gainditzeko estrategiak lantzeko.*
- *Indarkeria digitala prebenitzeko eta hari erantzuteko estrategiak lantzea, indarkeria matxista mota berri horiei ere aurre eginez.*
- *Udalerriko adingabeekin hezkuntza-prozesuak indartzea, BELDUR BARIK programaren eta tokiko beste ekimen batzuen bidez.*

Era berean, herritarrei dei egiten diegu, azaroaren 25ean, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egunean, haien udalerrietan deitutako mobilizazioekin bat egin dezaten.”

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZAN DU:



ALKIZAKO UDALA

BAKARRA: 2023ko azaroaren 25erako emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko eguna dela eta, Eudel-ek aurkezturiko adierazpena bere osotasunean onartzen da.

10.2.ABENDUAK 3, EUSKARAREN EGUNA DELA ETA UEMA-KO ADIERAZPENA

Ondoren, 2023ko abenduaren 3ko euskararen eguna dela eta, UEMA-ren adierazpena aurkezten da, non ondorengo dioen:

“Euskara eta bidea

Euskararen Nazioarteko Eguna, 2023.
Adierazpen instituzionala

Euskaldunak gara, euskaraz gara, eta hori da gure herrien nortasunaren ezaugarri esanguratsuenetakoa: udalerrri euskaldunak gara. Mendeetan zehar gure hizkuntza zamatu duten debeku, eraso, jazarpen eta erabakien gainetik, aurten bertan ezagutu ditugun datuek argi diote: oraindik ere gure herritarren gehiengoa euskalduna da, beste inon baino sendoago dago gurean euskara, eta udalerrri euskaldunak gero eta gehiago dira. Gurean ere asko aldatzen ari da erreliatea, ordea, eta egiteko konplexuak dauzkagu aurretik; hala ere askoren artean urte askoan egindako lanaren uzta ageriko da: ezagutzak gora egin du, gero eta euskaldun gehiago gara, eta horrek ekarri du udalerrri euskaldunen lurgunea handitzea, besteak beste.

Euskararen Nazioarteko Eguna, urtero, zer garen gogoratzeko eguna izan ohi da. Herri honek munduari ematen dion kolorea euskara dela esateko eguna. Harrokeriarik gabeko harrotasun eguna. Ospakizuna. Aurten, ordea, lanbrotuta ditugu bazterrak. Hilabetez hilabete ainubera kondenatu nahi izan gaituzte. Behin eta berriro. Euskararen aurkako erasoek ez dute etenik izan, eta epaitegietatik heldu den oldarraldiak marra gorriak gainditu ditu, euskararen beraren ofizialtasuna ere zalantzan jartzeraino.

Euskal jendarteak eta euskal erakundeek urte askoan kontsentsu zabalarekin egindako bidea mugatu nahi izan dute. Udalerrri euskaldunek bertako hizkuntza biziberritzeko eta euskara dagokion lekura itzularazteko egiten ditugun urratsak debekatu nahi dizkigute. Gazteleraren makulupean ibiltzera eta bigarren mailakoak izatera behartu nahi gaituzte. Baina euskara da gure herriko hizkuntza propioa, eta hori sustatzen jarraitzeko beharra daukagu udalerrri euskaldunek.



ALKIZAKO UDALA

Izan ere, erakundeei eredu izatea dagokigu. Herritarren eredu. Ahalegin eta konpromiso handiari esker, larreako nahi zuten hizkuntza noranahikoa izatea lortu du herri honek, eta ezin dugu zabaldutako bidean atzera egin. Berdatzen hasitako basoa berriro lehortzea onartu. Horregatik, udalerrri euskalduna garen heinean, adierazpen honekin bi konpromiso ezagutarazi nahi ditugu. Batetik, euskararen biziberritzean eta herritarren hizkuntza eskubideen defentsan eredu eta bide-urratzaile izateko konpromisoa. Bestetik, euskarak ezinbestekoa duen lege-babesa lortzeko lanean gainerako erakundeen eta eragileen bidelagun izateko konpromisoa.

Gaur egungo atakari aurre egiteko benetako lege-orubea behar baitu euskarak, erdaren erauntsiari aurre egiteko egiturazko neurri sendoak behar dituen bezala. Dagokigun arduratik, horiek lortzeko lanerako eta elkarlanerako ordua dugu orain erakundeok, inoiz baino gehiago. Euskararen lurgunea handitu dela esateaz gain, euskararen lurgunea sendotu ere egin dela ikus dezagun hurrengo urtean. Izan gaitezen eredu. Lehenetsi etorkizuna. Erakutsi eguzkia ainubean denari. Eman diezaiegun euskara eta bidea herritarrei.”

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZAN DU:

BAKARRA: 2023ko abenduaren 3ko euskararen eguna dela eta, UEMA-k aurkezturiko adierazpena bere osotasunean onartzen da.

10.3.EHPM-MPEH MOZIOA: GUTXIENeko PENTSIOA 1080

Batzarkideak aho batez, gaia mahai gainean uztea erabakitzen dute, gaiari buruz informazio gehiago izan arte.

10.4. TOLOSALDEKO MUGIMENDU FEMINISTAK AURKEZTUTAKO MOZIOA

Ondoren, Tolosaldeko mugimendu feministak aurkeztutako mozioa aurkeztzen da, non ondorengoa dioen:

“Euskal Herriko Mugimendu Feminista aspalditik salatzen ari zena azkartu zuen pandemiak, eta zaintza krisia azaleratu eta azkartu egin zen urte horietan. Egoera ikusita, Denon Bizitzak Erdigunean plataformak zaintza sistema iraultzeko prozesua



ALKIZAKO UDALA

abiatu zuen 2022. urtean, eta 2023ko azaroaren 30ean greba feminista orokorra egitea erabaki dugu zaintza eskubide kolektiboaren aide.

Testuinguru horretan, Alkizako Udalari eskatu nahi diogu 2024.urterako aurrekontu sailetan onar dezala konpromiso hau betetzeko behar den diru partida, eta egikaritu dezala honako eskaera hau:

1- Alkizako zaintza sistemaren diagnostiko erreala eta osatua egitea, eta horri erantzungo dion zaintza plan feminista eta integral bat osatzea urtebeteko epean."

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZAN DU:

LEHENA: Alkizako udalak bat egiten du Tolosaldeko mugimendu feministak eginiko proposamenarekin. Alabaina, gizarte-zerbitzuak Aiztondoren bidez mankomunatuta dituenek, mankomunitate horri proposatuko dio berak burutu ditzan proposamenok.

BIGARRENA: Aiztondo Mankomunitateari erabaki honen berri jakinaraziko zaio.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20:05 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

IDAZKARIAK